

Ander Kortaberria Lopetegi

Emaila • Aipamena

Kaixo, ni Ander Kortaberria naiz 12 urte dauzkat eta errugbia, marraztea, bideojokoak eta irakurtzea gustatzen zait, Alkartasuna Lizeora joaten naiz. Espero dut ipuina gustatzea, ea asmatzen duzuen zer den protagonista!!



TXIKI-TXIKIA ETA BOROBILA

Lehenengo aldiz erosi nindutenean berri berria nintzen, diz-diz egiten nuen izarren antzera. Haurrek sudurra kristalaren aurka zapaltzen zuten ni hobeto ikusteko lurrinak dena estali arte. Ikuslehioan nengoen azeituna etiketa guztiz kendu gabeko txarro batean. Etiketaren ondarren gainean errotulagailuz idatzita ozta-ozta irakur zitekeen: sei bost pezeta.

Bat-batean ume bat sartu zen dendara mostradorera hurbilduz. Ondoren poltsikotik banan-banan bost pezeta atera zituen eta behatza luzatuz esan zuen : "horiek nahi ditut!". Atsoak mutikoa aurpegira begiratu gabe, txarroa hartu, eta aurrean zakarki jarri zion." Zerorrek aukeratu", bota zion. Haurrak politenak aukeratu zituen: katuen begien antzeko bi, ostadarraren koloreko beste bi, beltz bakarra eta azkenik txuri-urdina. Kontu handiz miatu zituen akatsen bila, txuri-urdinaren txanda heldu zenean, pitzadura txiki bat hauteman zuen, beraz, txarrora itzuli zuen eta begiak itxita, ni hartu ninduen!

Berrogei urte joan dira orduz geroztik. Nire lagunak desagertzen joan ziren: beltzak estolderiatik ihes egin zuen, beste bat auto batek txikitu zuen, besteak auskalo! Lagun berriak ere egin nituen, eta orain hemen gaude, baztarrean, zapata kaxa ilun batean ezkutatuta, ziba, taba bakarti bat eta ni. Hau hirukotea!

Gaur goizean aspaldiko partez eguzkiaren argia ikusi dugu kutxaren alboko zuloxoetatik. Norbaitek " traste zahar hauek bizilagunari emango dizkiot" esan du. Ondoren txirrina entzun dugu eta lurrikara hasi da. Azkenean mugimendua bukatzerakoan, bizilagunen semeak tapa altxatu du eta kaxari buelta emanez lurrera bota gaitu. Erortzean piririka ohearen azpialdean ezkutatu naiz.

"A ze kaka pila", esan du haurrak ziba kaxara bueltatu aurretik. Segidan alfonbraren ertzetik ikusi dut ume mokoak taba ahoan sartu duela eta gogor murtxikatzen ari dela behin eta berriz txiklearen antzera. Hortan ari zela ohiuka amari galdetu dio ea zenbat egun falta diren Port Aventura-rako txangorako. "Bat besterik ez, orain bota ahoan darabilkizun zikinkeria hori eta egin etxerako lanak behingoz!". Taba gaixoa hortz markaz josita eta lerdea zeriola zakarrontzira joan da betirako.

Umeak ez ditu hiru minutu ere lanean jardun kontzentrazioa galdu eta mahai gaineko kutxara

gerturatu arte. Kontu handirik gabe ziba atera eta bere koloreetako errotulagailuekin tamaina guztietako pitilinak marraztu dizkio buelta guztian. Hori gutxi izango balitz konpasa hartuta zuloz josi du. Amak afaltzera deitu duenean, umeak mezpretxuz ziba zakarrontzira jaurti du. Nire txokoan izkutatuta pentsatzen hasi naiz.

Goizeko argi izpiak nere txokoa argitu dute umea esnatuz. Kakanarrua zeharo haizetuta dabil ohetik lurrera saltoka behin eta berriz. Salto batean nahi gabe alfonbra mugitu du ni eskaileraruntz bultzatuz. Hau da nire aukera!

Txangorako poltsa prestatu ondoren arrapaladan sukaldera abiatu da bere oinak nirekin topo egin arte. Muturrez aurrera erori da eskaileratik behera hortzak mailen kontra txikituz.

Oraintxe bueltatu dira larrialdietatik. Dirudienez ezkerreko hanka eta eskuineko eskumuturra puskatu ditu eta bolara luze baterako txangorik gabe gelditu da.

“Kontuz karmarekin edozein itxura har baitezake eta”